

## ***Lurraren izenak***



**Triana**

**Gu aillegaitterako  
mundua bada  
izen bitxiz betia:  
Olaa, Triana,  
Mojasoro, Udana.**

**Lurraren izenak  
zubixak dira,  
denporiaren uberak.  
Zañartu, Ubao,  
Olapoto, Berezaio.**

**Ezkara lehenenguak  
hemen honeittan  
berbetan ibillixak.**

**Osinurdin, Garai,  
Auntzerreka, Garibai**

**Gizaki musikia  
hartu dau lurrak,  
lurrotsa gizakixak.  
Murguzur, Koroso,  
Jaumendi, Torreauso.**

**Lurrari loturik  
leku-izenak,  
gu bagoiaz igaruaz.  
Duru, Mirubizkar,  
Zubillaga, Goribar.**

**Gerardo Markuleta**



**Zañartu**



**Osinurdin**



**Mirubizkar**